

## **JUAN IGNACIO PEREZ-EKIN ELKARRIZKETA UPV/EHUko Euskara Errektoreordea**

Imanol Esnaola eta Xabier Isasi

Une honetan UPV/EHUK hizkuntz normalizazioaren bigarren plangintzaldiaren helburuak finkatu ditu. Euskararen Institutuaren esku ere zenbait betekizun zehaztu du. Guk horren berri jaso nahi izan dugu eta horretarako J. L. Perez, Euskara Erretoreordearengana jo dugu horren berri jasotzera.

**Galdera: Iaz sortu zen UPV/EHUn Euskara Institutua, zein dira bere eginkizun nagusiak?**

**J.L. Perez:** Eginkizunak epe labur edo luzera jar daitezke. Nahiago dut epe laburreko eginkizun ez aritzea, izan ere, ez gaude epe luzera gertatuko denaz aurreikuspenak egiteko moduan.

Epe laburrera bi motatakoak dira eginkizun nagusiak, batetik unibertsitatean dauden irakasle elebidunen birziklatzea, euskara landu eta gaurkotzera bideraturiko ikastaroen bidez. Horrelakoak egin izan dira aurreko urteetan ere. Horrek izan behar du Euskara Institutura atxikirik dagoen pertsonaren zeregin nagusia, ikastaro hauek koordinatu eta jarraipena egitea. Azken urteotan kontratatutako irakasle elebidunek normalean ikastaro asko eman behar dituztela eta, prestakuntza akademikoa hobetzeko, gaiak terminologia aldetik prestatzeko... denbora gutxi dutela adierazi eta laguntza eskatu digute. Alegia, hizkuntz alorrean izan ditzaketen premiatan laguntzea. Hori izango da Institutuaren zereginetako bat, besteak beste.

Bigarren zeregin nagusia unibertsitate terminologiari dagokio. Datorren urterako nire asmoa ezagutza arlo desberdinetan hustuketa terminologikoak egiten hastea da. Entitate desberdinek, UZEI, Elhuyar, UEU, Unibertsitateak berak hainbat lan argitaratu dituzte. Unibertsitatez kanpoko erakundeek egin badute ere, bertan ez diogu behar bezala heldu. Beraz, hustuketa egin eta landu egingo dugu: glosarioak eginez, aztertuz... Lan hori burutzeko lankidetzak bekak deitzeko asmoa dugu, hustuketa hori egin dezaten. Institutua eta Unibertsitateko irakasle zenbaiten bidez horren guztiaren jarraipen zientifiko-teknikoa egingo dugu. Helburua ezagutza arlo desberdinetako glosarioak prestatzea da. Glosario horiek guk geuk argitaratu eta ikasle eta irakasleen artean banatuko ditugu.

Epe laburrerako beste helburuetako bat, beste errektoreordetza batekin lankidetzan, ikerkuntzara bideratutako beken artetik bi Euskara Institutura bideratzea da. Alegia, bi bekadun jartzea Institutuaren eginkizunetan iker-lanean. Institutuak ezin du epe laburrean egin beharrekoari begira egon, epe luzera ere begiratu behar du. Garrantzitsua da, beraz, ikerkuntza-lerroak garatzea Institutuari berari dagozkion lanetan.

**Galdera: Eusko Jaurlaritzak eta Unibertsitateak urtero ikasleen euskara maila ezagutzeko neurketak egiten dituzte. Zer egingo duzue neurketa horien emaitzekin?**

**J.L.P.:** Azken urteotan eskuratutako datuak Unibertsitateko Euskara Batzordean aztertzen ari gara. Nire asmoa datu horiek Campus-ka bereizi eta bakoitzeko euskara arduradunarekin batera aztertzea da, Unibertsitateak zer egin dezakeen ikusteko. Emaitzak aztertu, baloratu eta egin beharrekoa egitea da gure asmoa.

**Galdera: Eta irakasleekin?**

**J.L.P.:** Ikastetxeren bateko irakasleek frogak bera egitea eskatu dute, bertako emaitzek, ordea, ez dute balio estatistikorik. Gaur egun irakasleei ezin diegu euskara frogarik egin. Hemen euskara frogak irakasle elebidun izateko egiten da, hori gainditzeak unibertsitatean haien jakintza arloan euskaraz irakasteko gaitasuna dutela esan nahi du. Ez da logikoa baldintza horien pean sartu diren irakasleei orain beste euskara frogak bat egitea. Prozedura horrek disfuntzioak izan ditzake, baina euskara maila hori nahikoa ongi bermatuta dagoela uste dut.

**Galdera: Zein dira unibertsitatearen bigarren plangintzaldiaren irizpide nagusiak?**

**J.L.P.:** Bi motatako irizpideak daude, teknikoak eta hizkuntz politikazkoak. Irizpide teknikoetan, gaur egun, euskararen egoeraren balorazioa egiten ari naiz. Arlo nagusi, ikastetxe eta titulazio bakoitzean euskal adarrak duen garapena aurreko normalizazio plangintzan jarritako helburuekin alderatuko dugu, hasierako helburuak zenbateraino bete ditugun ikusteko. Garrantzitsua da zer gertatu den ikustea, hutsunerik topatuz gero neurriak hartu ahal izateko. Bestalde, azken bost urteotan lehen mailan

---

**«Unibertsitatean dagoen lehen zeregin nagusia irakasle elebidunaren birziklaia da, euskara landu eta gaurkotzera bideraturiko ikastaroen bidez. Bigarren zeregin nagusia unibertsitate terminologiari dagokio. Datorren urterako nire asmoa ezagutza arlo desberdinetan hustuketa terminologikoak egiten hastea da. Entitate desberdinek, UZEI, Elhuyar, UEU, Unibertsitateak berak hainbat lan argitaratu dituzte. Epe laburrerako beste helburuetako bat, beste errektoreordetza batekin lankidetzan, bi bekadun jartzea Institutuaren eginkizunetan iker-lanean»**

**«Bi motatako irizpideak daude unibertsitatearen bigarren plangintzaldian, teknikoak eta hizkuntz politikazkoak. Teknikoetan, ikastetxe eta titulazio bakoitzean euskal adarrak duen garapena aurreko normalizazio plangintza jarritako helburuekin alderatuko dugu hasierako helburuak zenbateraino bete ditugun ikusteko. Azken bost urteotan lehen mailan matrikulatu diren ikasle euskaldunen portzentaia aztertzen ari naiz eta horrela, finkatzen ditugun helburuen arabera gure beharrak zein izango diren jakingo dugu. Hori jakintza arloz jakintza arlo egingo dugu eta helburu desberdinak planteatuko ditugu, bakoitzaren kostea ebaluatzeko eta horrekin gobernuarengana joan eta helburu horiek zenbateraino finantzatzeko prest dagoen ikusteko euskal lerroen garapena»**

matrikulatu diren ikasle euskaldunen portzentaia aztertzen ari naiz zein joera dauden ikusteko eta epe labur eta ertainean beharrak zein izango diren ikusteko, zein talde eratuko den, zenbat ikasle behar den euskarazko talde bat eratzeko, zein den euskaldunen proportzioa, zenbat talde izango den... Eta horrela, finkatzen ditugun helburuen arabera gure beharrak zein izango diren jakingo dugu. Horri gaur egun ditugun irakasleak kenduz, diferentzia, alegia, falta zaiguna, ezagutuko dugu. Hori jakintza arloz jakintza arlo egingo dugu eta helburu desberdinak planteatuko ditugu, bakoitzaren kostea ebaluatzeko eta horrekin gobernuarengana joan eta helburu horiek zenbateraino finantzatzeko prest dagoen ikusteko euskal lerroen garapena. Hori da nire asmoa ikuspegi teknikoan.

Bestalde hizkuntz politikazko irizpideak daude. Azterketa horretan ageri denez, matrikulatutako euskaldun kopuruan gora-behera handiak daude jakintza arlo batetik bestera. Horren arrazoa ezagutu beharra dago. Zergatik dago euskaldun gehiago giza zientzietan eta gutxiago teknikoetan? Hor eragile desberdinak egon daitezke. Ikasle euskaldunek konfiantza gutxi edukitzea dagoen egoeratik (baliabide urritasuna, irakasle urritasuna...) ikas prozesu normalizatua egiteko, edo beste motaren bateko arazorik ote dagoen aztertu behar da.

**Galdera: Zenbat ikasle dago orain unibertsitate honetan euskaraz ikasten ari dena?**

**J.L.P.:** Azken bi urteetako datuen arabera geroz eta gutxiago, gezurra badirudi ere. Orain lehen urtean matrikulatutakoen datuak aztertzen ari naiz eta oso datu aldakorrek dira, izugarri aldakorrek. Ingeniaritza tekniko batzuetan % 5a, maximak % 50a dira, irakasle eskolak alde batera utzita, horietako batzutan %100 baita. Beraz, Unibertsitatean urtero sartzen diren ikasleen %20a da, batez beste, euskaraz ikasten ari dena. Eta behe-rakada horrek kezkatu egiten nau, frustrazio baten emaitza izan baitaiteke.

**Galdera: Bigarren plangintzaldian irakasleei dagokienez ba al dago irizpide finkoren bat?**

**J.L.P.:** Lehen-lehenik orain arte egindakoaren balorazioa egin beharra dago. Ez da aski helburuak finkatzea, gaur egun titulazioz titulazio, jakintza-arloz arlo, sailez sail dagoen egoera ezagutu behar dugu. Hori orain ari gara egiten eta horrek emango dizkigu balorazioa egiteko argibideak. Gu hemendik plaza berriak elebidun izan daitezen ahalegintzen ari gara, ez plaza horiek gaur elebidun izan behar dutelako, baizik eta bihar, behar bada, izan beharko dutelako, egoera soziolinguistikoa aldatu delako edo gure datuek hori gertatuko dela adierazten digutelako. Beraz, hori egiten ari gara baina ez plan zehatz bat jarraituz.

**Galdera: Ba al dago Euskal Herriko gainerako unibertsitateekin, batez ere Nafarroakoarekin, elkarrekin ezer egiteko asmorik?**

**J.L.P.:** Nafarroako Unibertsitatearekin hitzarmen bat badugu, baita beste

unibertsitateekin ere. Han ez dago Euskara Erretoreordetzarik, Akademi Gestiorako Erretoreordetza dago eta ni hauekin nago harremanetan. Irakasle elebidunak kontratatzeke dugun prozedura nolakoa zen ezagutu nahi zuten, gure esperientzia... guk gure arautegia bidali genien eta erantzunaren zain gaude. Bestalde, hitzarmen horren barruan gure unibertsitate-tik horra irakasleak bidaltzeko aukera dago eta horren bidez badugu gure irakasle bat eskolak euskaraz ematen Nafarroako Unibertsitatean. Nire ustez, etorkizunean lankidetzak hori areagotu egin daiteke. Une honetan, ordea, normalizazio plangintzarekin izan diren arazoak direla eta, ez dut uste unerik egokiena denik bi unibertsitateen arteko lankidetzak burutze-ko maila honetan. Haiek euren normalizazio ereduak zehaztu behar dute lehen-lehenik eta hori eginda dutenean lankidetzarako esparrua zabalik izango da.

---

**«Azken bi urteetako datuen arabera geroz eta ikasle gutxiago ari da euskaraz ikasten.**

**Unibertsitatean urtero sartzen diren ikasleen %20-a da, batz bestea, euskaraz ikasten ari dena»**